

pergolari

Orioko Herri Ikastolako aldizkaria / 2011ko abendua / 6. zenbakia



40 urtez elkarrekin

Pergolako oroitzapenak

“Astearte eta ostegunetako atsede-naldietan futbolean jokatzeko nuen. Mutilekin. Astelehen, asteazken eta ostiraletan goman edo sokasaltoan. Neskekin. Erdigunean. Ertzean.”

Irribarre egin dut. Ikastolako oroitzapenen errebasoan (errebaso sakratua!) lehen oroitzapena jolasean izan dudalako. Alai. Pozik. Inozo, bixi. Bihurri. Hara eta hona, builoso, eskandaloso. Ixil-ixilik.

Inozentziaren sintonian, lagun giroan, bazen egunero barruan klima. Abestia. Antzerkia. Hitzeko kolorea, ipuinen egia. Grina eta ilusia; jakin-minaren paradisua. Azken urteetarako, iritsi ziren sekretuen altxorak; lehenengo maiteguden zirrarak. Geroago etorriko ziren baita, lotsagabekeriak; ikasle protestak; kekek. Hego haize errebotarien garaia...

Ikasle, irakasle eta gurasoen joan-etorrien gainetik; pergolako zutabeen kolore aldaketan gainetik; eraikin berriez aparte... Nago, seguru, jarraitzen duela euskararen gurrupilak; mantentzen dela txikiaren epela; ametsak pilatu eta pilatu, oherik ederrenaren pareko sehaska kuttuna dela.

Esker oneko hitzak baino ez datozkit Ikastolaz. Badaramatzat lagunak motxilan. Pasadizo ederrak, abentura gogoangarriak. Harridurarik harriarrienak, zirrararik politenak. Istorio eta pelikulak. Pelikula kuttun asko.

Han hazi nintzen. Hezi. Jolasean, ikasi egin nuen. Ikasten, makina bat barre egin nuen. Algaraka, erantzunik egokien bila, galderarik sakonenak otu zitzaizkidan. Han: Ikastolan, pergolan.

Joseba Orella



Ikastola berriaren inguruko eremuak

Azken urteotan, gure herria asko aldatu da. Batetik, etxe asko eraiki dira; bestetik, aisialdi guneen gabezia konpontzeko asmoz, DBHko eraikin berriaren inguruan hainbat berrikuntza egin dira.

Hasteko, udalak zenbait parke eraiki ditu. Bata, futbol zelaiaren ondoan, *hauts parkea* izenez ezagutzen duguna; bestea, Iplay-a, ikastola aurrean. Bigarren hori oso berezia da, munduan oso gutxi egoteaz gain, eguzki energiaren baliatzen baita. Gainera, oso garestia da, eta kontuan izan behar dugu probarako bakarrik ekarri dutela. Beraz, parke horri erabilera egokia ematea oso garrantzitsua da, bestela kendu egingo baitute. Azkenik, Iplay-aren ondoan dagoen gatzeko zelai txikia; hori saskibaloia eta futbola praktikatzeko egokituta dago. Bestalde, Orioko Herri

Ikastola proiektu batzuk egin nahian dabil DBHko eraikin berriaren inguruan. Batetik, ikastola aurrean jadanik pintatu duten zelai handia dugu. Bertan, zelaiaren luzera osoa aprobetxatuz, bi *porteri* kokatuko dituzte; eta zelaiaren erdian, luzera osoaren perpendikular bi saski. Zelaiaren alboan, berriz, 50 metroko luzera duten lauzpabost atletismo-pista zuzen ipintzekotan dira.

Halaber, zelai handiaren eta txikiaren artean belardi bat dago. Hor baratz ekologikoa ipintzeko proiektua diseinatzen ari dira zenbait irakasle eta guraso. Egitasmoa hurrengo urtean jarriko da martxan, udaberri aldera; aurten hesitze lanak egingo dituzte.

Azkenik, egindako lanengatik, guztiei eskerrak ematea besterik ez zaigu gertatzen.



Bideari zuzen ekiteko, hasieratik pausoak bideratu behar

2 urteko ikasle berriak izaten ditugu urtero ikastolan. Pixkanaka-pixkanaka egin behar izaten dute leku eta pertsona berrietara ohitzeko bidea. Guraso den Joseba Gartzinari eskatu diogu berak izandako bizipenen berri emateko. Hona hemen berak esandakoak.

Sekula ez da erraza izan niretzat. Aldaketa guztiek, nahiz eta onerako izan, beti dute zailtasun puntu bat. Lan berri batek, esaterako. Bila zabiltzala urduri; topatu ondoren, berriz, beste kezka batzuk. Gauza izango al naiz? Asmatuko al dut? Horren ondorioz, lo egiterakoan larri; bazkariak ere onik ez; umorea, berriz, ozpinduta. Hitz batean, ondoeza.

Pertsona helduontzat horrela bada, zera datorkit burura: ume txikiek nola egiten ote diote aurre horrelako egoera bati? Nola babesten ote dute beren burua horrelakoetan? Zer-nolakoak ote dira ondorioak?

Ez dakit konparaketa zuzena den, seguruenik ez; baina, gutxienez, hausnarketa egiteko aukera ematen digu. Azken batean, haurra, gaztea zein heldua izan, sozializazio prozesu orok egokitze aldia eskatzen digu.

Haurren heziketan, gainera, prozesu horrek garrantzi handia du.

Ikastola osatzen duten guraso guztiek badakite zertaz ari naizen, baita eskolara lehen aldiz egokitzeak zer dakarren ere. Ez da batere erraza. Ez gurasoentzat, ez irakasleentzat, ezta umeentzat ere. Gurasoen kasuan, nire uste apalean, ez dago eztabaidarik. Oso gaitza egiten zaigu gure seme-alaben egokitzapen aldia; izan ere, lana dela-eta, antolatzea oso zaila izaten da, batez ere ordutegiari dagokionean. Baina, hortaz baino egokitzapenak berak duen garrantziak mintzatzea nahiago dut.

Lagun batek zera esan zidan: azken batean, umeentzako baino irakasleentzako egokitze prozesua ez ote da hau guztia? Hausnartu eta gero, nire buruari baietz esan nion, lagunak arrazoi zuela, alegia. Halere, hainbat xehetasun kontuan hartzeakoak dira nirekiko.

Ikastolan hasi aurretik, irakasleek bilera batean emandako aholkuak oso esanguratsuak izan ziren. Umeak denon artean hezten ditugu. Inguruaz aparte, hor gaude senideok, baita irakasleak ere. Beraz, eta kasu honetan zehazki, guztion arteko koordinazioa da helburu.

Umeek giro atsegina behar dute. Izan ere, egundoko aldaketa da beraietzat; gurasoen babesa nolabait galdu, eta toki arrotz batean eguna eman behar izatea. Hain zuzen ere, horretarako gaude gu berriekin, eremu berri hori modu positiboan beregana dezaten. Eta horretarako behar gaituzte bertan, hezitzaileengana dugun konfiantza modu naturalean barnera dezaten.

Are gehiago, umeak hazten eta hezten lagunduko gaituzten horiek ere gure laguntza behar dute ikasle berriaren joera ulertzeko, bere erreakzioak eta defentsa mekanismoak zeintzuk diren modu praktikoa ikusteko; nolakoak diren ahalik eta lehen jakiteko, alegia. “Elkar eza-gutu, elkar ulertu” izan daiteke ideia horren leloa edo laburpena.

Hiru partaideen loturak poliki-poliki landu behar dira, ume bakoitzeko epe ezberdinetan, hortik aurrera finkatuko diren harremanak ahalik eta zutabe sendoagoak izateko. Azken batean, umeek asko ikasiko dute, edonola ere. Baina hori ez da garrantzitsuen. Askoz erabakigarriagoa da umeak emozionalki laguntzea benetako helburuari begira, heziketarako jarrera ireki eta alaitua errazteko.

Beraz, guraso edo senideek irakasleekin bat egindako lana ez

da xamurra, ahalegin handia eskatzen baitu; baina emaitzak merezi du, benetan. Edozein epera, gainera: motzera zein luzera.

Niri asko kostatu zait, baina interesgarria izan da oso. Gusturago, partaidetzak lagundu naue-lako. Ordainetan, gainera, goizero umeak bertara eraman eta poz-pozik bertan geratzen ikustea izan da, baita etxean ikastolarekiko erakusten duten jarrera positiboaz jabetzea ere. Beraz, merezi duelakoan nago, bai noski.

Guraso edo senideek irakasleekin bat egindako lana ez da xamurra, ahalegin handia eskatzen baitu; baina emaitzak merezi du, benetan. Edozein epera, gainera, motzera zein luzera



Benito Lertxundik jaurtiki zuen txupina

Orioko Herri Ikastolaren 40. urteurrena dela-eta, aurtengo ikasturtea ospakizunez beteta datorrigu. Festari hasiera emateko, maila handiko pregoilaria izan genuen gure artean: Benito Lertxundi herriko kantaria.

Pasa berri den abenduaren 10ean, eta oraindik Sanikolaseta txupinaren oroitzapena buruan iltzatuta generamala, Benito Lertxundik kantaldi paregabea eskaini zigun Karelana. Ehunka pertsona hurbildu ziren

kiroldegira; gehienak oriotarrak izan arren, baziren Euskal Herriko hainbat txokotatik etorriak ere: Oiartzun, Arrasate, Bergara, Zestoa, Sara... Aipagarria da Mexikotik etorritako Benito zale sutsu bat ere gure artean izan genuela.

Benitok bere ohiko estiloari eutsi zion kantaldian: goxoa eta sentimentuz beterikoa. Aspaldiko kantuez gain, udaberri aldera kaleratuko duen disko berriaren hamar abestiez gozatzeko parada ere izan genuen. Halaber, eta Be-

nitok berak aurkeztu bezala, "ikastolako produktua" den Intza Unanuek laguntzaile lanak bete zituen Olatz Zugastirekin batera.

Gaua primeran joan zen. Konturatzera, igandeko ordu txikitari sartuak geunden. Amaierako txalo zaparradek gauza asko adierazi zuten, kantariaren jarraitzaileek Benitori dioten maitasuna eta errespetua, besteak beste. Bejondeiola!

Ikastolako kideei, berriz, zorionak eta eutsi betiko ilusioari!

Lehenengo suziria airean da, eta ez da azkenekoa izango. Zaudete ziu! Bizirik gaude, eta goza dezagun! Zorionak guztioi!

Herri lasterketa

Urriaren 23an, Ikastolaren eskutik, Orioko Herri Lasterketa berreskuratu zen. 7 eta 14 kilometroko distantziak korritu ahal izan zuten lasterkariak. 300dik gora korrikalarik parte hartu zuten lasterketan. Partaidetza arrakastatsua izan zenez, datorren urtean ere ekimenari jarraipena emango zaio; betiere aurtent bezalako babesak jasotzen bada boluntarioen aldetik.

Mapfre eta saskibaloia

Mapfre aseguru etxeak eta Orioko Herri Ikastolak akordioa sinatu berri dute. Hitzarmen horren arabera, Mapfrek Ikastolako lau saskibaloitako talde, hiru neskena eta bat mutilena, diruz lagunduko ditu 2011-2012 denboraldian. Laguntza ekonomiko horren truke Mapfre izena agerian izango dute jokalariek euren kamisetetan.

Auzolanean

Psikomotrizitate gela barneko komuna egoera txarrean zegoenez, Ikastolan erabaki genuen konpondu egin behar zela. Guraso bati eskatu zitzaion komunean egin beharreko konponketak balioesteko. Berak materiala bazeukala, eta lurra aldatzea musu truk egingo zuela erantzun zigun. Baita dotore jarri ere, bejondeiola! Eskerrik asko!

Kantu Txapelketa

Joan den azaroaren 27an, Gipuzkoako XV. Euskal Kantu Txapelketa jokatu zen Donostiako Antzoki Zaharrean. Intza Unanue eta Olatz Lizaso DBH-4ko ikasleak binakako sailean parte hartu zuten, Julen Alonsok pianoan lagunduta. Bigarren saria lortu zuten "Zuk gora naramazu" abestiarekin, "You raise me up" kanta ospetsuaren euskarazko bertsiorekin, hain zuzen.

Badira 16 ikasturte Orioko Herri Ikastolak eleaniztasun proiektua martxan jarri zuela. Euskara ardatz izanda, eta gaztelania 2. hizkuntza gisa hartuta, atzerriko hizkuntza (ingeleza) 4 urtetik irakasten hasi zen Ikastola. Hasiera-hasieratik, hizkuntzaren ikuspegi komunikatiboa hartu zen oinarritzat. Bideari jarraituz, orain beste urrats bat eman da: Enjoy English, ingeleseko udalekuak.

Udaran ingelesez, gozatuz



San Ferminetako buelta horretan, uda oro ikusi ditugu Txurrumuskiko begiraleak zuriz jantzita gerriko gorriarekin, saltoka eta brinkoka Iruñeko santuari abestuz, edo bertako karriketako festa gurera ekarriz. Ez genuen pentsatuko, Ernest Hemingway-ek eraginda, eta Nafarroako hiriburuan bezala, Ikastolako pergolan ere ingeles hiztunak entzungo genituenik. Bada bai, Shakespearen hizkuntza ahotan hartuta, Ikastola inguruan ibili dira Lehen Hezkuntzako 3, 4, 5 eta 6. mailetako 48 neska-mutil; batzuetan, YES; besteetan, VERY GOOD; eta, askotan, THANKS esanez.

“Enjoy English” edo “Gozatu Ingelesez” izena dute, udara honetan, Ikastolak martxan jarri dituen ingeleseko udaleku ire-

kiek. Uztailean, goizeko jardunean, jatorrizko ingeles hiztunek gidatutako hainbat ekintzaz gozatzeaz gain, gure kultura eta atzerriko beste kulturaren arteko elkar trukea gauzatzeko aukera ere eman dute udalekuak.

Izan ere, begirale lanetan Irlandako Galway hiritik etorritako Paula, eta Ingalaterrako Birmingham-etik etorritako Lucy eta Dominic gazteak aritu dira. Paula (22 urte) eta Lucy (25 urte) Ikastolako Uranga-Berasategi familiak hartu zituen beraien etxean; Dominic (20 urte), berriz, Albizu-Iratorzanean egon zen hilabete guztia. Uranga-Berasategitarren esanetan, “etxean ingeles hiztunak hartzeko familiak behar zirela jakin genuenean, nahiz eta gure

zalantzak izan, oso aukera eder-rra iruditu zitzaigun. Atzerriko bi neska gure artean bizitzen egotea seme-alabentzat aberatsa izango zelakoan geunden, eta hala izan zen: egunero-egunero ingelesez hitz egiten entzuten genituen, umeez itzultzaile lanak ere egiten zituzten, eta oso giro polita sortu zen familian.”

“Senarrak eta biok ingeleseko ezagutza handirik ez genuen, baina pixka bat bai; beraz, mintza-praktika lantzeko, jatorrizko ingeles hiztun gaztea gure artean hartzea aukera interesgarria iruditu zitzaigun. Gure aldetik Dominic-i Orio, bere inguruak, gure kultura eta ohiturak ezagutzera ematen saiatu ginen, eta bera oso motibatuta sumatu genuen, erabat integratuta gure artean. Oso ondo mol-

datu gara!”, zioten Albizu-Iratorzatarrek.

Baina, zeintzuk dira udaleku berezi horien helburuak? Argi dago: jolasean eta ondo pasatuz hezi nahi dira ikasleak aisialdian;

**Shakespearen
hizkuntza ahotan
hartuta, Ikastola
inguruan ibili dira
Lehen Hezkuntzako
3, 4, 5 eta 6. mail-
tako 48 neska-mutil;
batzuetan, YES;
besteetan, VERY
GOOD; eta, askotan,
THANKS esanez**



**Paula (22 urte) eta
Lucy (25 urte)
Ikastolako
Uranga-Berasategi
familiak hartu zituen
beraien etxean;
Dominic (20 urte),
berriz,
Albizu-Irastorzanean
egon zen hilabete
guztia**

atzerriko hizkuntza batean oinarrituko konpetentziak garatuz; batez ere, komunikatzen eta elkarrekin bizitzen ikasiz. Horretarako, ahozko hizkuntzari, hizkuntza idatziari, IKT-ei, gatazken konponketei, parte hartze demokratikoari, elkarlana eta aniztasunari berebiziko garrantzia eman zaie ingeleseko udalekuetan.

Uztailak izan zituen lau aste-etako bakoitzean proiektu ezberdinak landu zituzten.

Batzuetan, ipuin klasikoetan oinarritu ziren; besteetan, blogak sortu zituzten; halaber, beraien artean jolasteko lehiaketa bitxiak ere antolatzeke gai izan ziren; eta, amaitzeko, festa handi bat bitarteko, proiektu guztiak elkarririk erakutsi zizkioten.

Ikastolan, uztailaren izan diren Enjoy English udalekuen koordinatzailea Jokin Mena Salsamendi ikasle ohia izan dugu. Ikastola ondo ezagutzeaz gain, Jokinnek esperientzia zabala du aisialdiko begirale gisa; Ikastolako ikasle asko bezala, udara askotan aritu izan baita Txurumuskiko begirale lanetan. Gainera, Jokin 4 urtez Galesen bizi izan da; horrenbestez, bere ingeles maila bikaina da. Gaur egun, Orioko ingeles akademian irakasle lanetan dabil. Jokinnek esan digunez, “oso hilabete polita izan zen niretzat; oso harreman ona eraiki zen hasieratik begirale eta gure artean, eta apenas sortu zen arazorik. Ikastolak eta Ikastolen Elkartek behar nituen baliabide

guztiak eskura utzi zizkidaten: gelak, materialak, IKT tresnak...; eta koordinazio lanak egiteko, babes osoa izan nuen; horrek asko erraztu zizkidan lana egiteko baldintzak.”

Goian aipatu den bezala, Enjoy English udaleku irekietan 48 ikasle aritu dira udara honetan, 3 taldetan banatuta; talde bakoitzak ingeles jatorrizko begirale bana zuen. Datorren udarari begira, berriro egingo da eskaintza, udaberri aldera, LH 3. mailatik hasi eta 6. mailara arte. Eskakera egiteko orriak Ikastolak banatuko ditu ohar buletinaren bidez. Lehen bezala, parte hartzen duten ikasleen familiek begirale lanetan ibiltzen diren atzerriko gazteak etxean hartzeko aukera izango dute; horren truke, udalekuaren matrikula doan aterako zaie.

Hizkuntza bat ez da ikasten erabiltzen ez bada, eta Orioko Herri Ikastolak ingelesa ahotan erabiltzeko beste aukera bat ematen die ikasleei, betiere oinarri hezitzaileak kontuan

izanda, eta aisialdi garaian dardela ahaztu gabe. Gozatu udara ingelesez!

**Jolasean eta ondo
pasatuz hezi nahi
dira ikasleak
aisialdian, atzerriko
hizkuntza batean
oinarritako
konpetentziak
garatuz; batez ere,
komunikatzen eta
elkarrekin
bizitzen ikasiz**

**Datorren udarari
begira, berriro egingo
da eskaintza,
udaberri aldera, LH
3. mailatik hasi eta
6. mailara arte**

“Orioko Ikastolaren eta unibertsitatearen edo lan munduaren artean dagoen zubia da Oteitza”

Joxe Mari Erkizia Oteitza Lizeo Politeknikoko zuzendariarekin aritu gara solasean. Hezkuntza sistemaz, heziketaz eta egungo ikasleez hitz egin digu Joxe Marik.

Derrigorrezko Hezkuntza amaitu ondoren, Orioko Herri Ikastolako ikasleek Oteitza Lizeoan jarraitzen dituzte beren ikasketak. Nola gauzatzen da trantsizio hori?

Oso era naturalean ematen da. Oteitza Lizeoa Ikastolaren jarraitpena dela esan dezakegu. Ikasketen maila altuagoa da, beraz, ikasleei lan gehiago egitea eskatzen zaie. Gainerakoan, Ikastolen Federazioak markatutako bideari jarraitzen diogu, eta ikasleentzat ez da arrotza egiten. Nolabait esateko, Orioko Ikastolaren eta unibertsitatearen edo lan munduaren artean dagoen zubia da Oteitza.

Zer eskaintzen die Oteitza Lizeoak bertara doazen ikasleei?

Ikasketa aukerei dagokienean, Batxilergoa nahiz Erdi eta Goi Mailako Lanbide Heziketako zikloak. Heziketari dagokionean, berriz, hezkuntza eredu berria eta eguneratua, hemen bizi dugun errealitatea eta dauden lan-aukerak kontuan hartzen dituen, alegia. Azkenik, jatorri eta helburu desberdinak dituzten ikasleekin nahasteko parada; izan ere, Zaratuz, Getaria, Zumaiia, Azpeitia, Deba eta Orioko ikasleek bat egiten dute gurean, eta ikastolan hasitako bide horretan euren burua birsortzeko aukera izaten dute.

Nola definituko zenuke Oteitza Lizeoa?

Ez-ohikoa, hitz horrekin definituko nuke. Batetik, soilik derrigorrezkoak ez diren ikasketak eskaintzen ditugulako; eta, bestetik, unibertsitate edo lan-mundura sartzeko prestatzen ditugulako ikasleak. Hiriburuak salbu, Ikastola gutxi dira derrigo-



Joxe Mari Erkizia

rezkoak ez diren ikasketak eskaini, eta guk dugun ikasle kopuru handia hartzen dutenak.

Zer-nolako da Oteitzan aritzen diren ikasleen soslaiak?

Batxilergoa ikastera datozenen bi herenek zientzia eta teknologia alderdiak hautatzen dituzte; beste herenak humanistikoaren alde egiten du. Bestalde, aipatzekoa da azken ikasturteetan selektibitate aurkeztu izan diren guzti-guztiek gainditu dutela proba hori.

Hitz eginiezaguzu Lanbide Heziketaz.

Oteitza Lizeoaren ikasketa-aukerak inguruan oinarrituta daude, inguruan dagoen lan eskaintzari egokituak, hain zuzen. Horrenbestez, inguruko enpresek dituzten beharrei erantzuna eman nahian, gure eskaintza teknologiararen esparrura mugatzen da. Orain oso modan dago aisiarekin lotutako lanbide zikloak ikastea, baina zalantzan jartzen dugu inguruko enpresetan ikasketa horiek dituzten langileak behar ote dituzten.

Orioko ikasleek arazo berezirik izaten al dute?

Orioko ikasleek ez dute arazo berezirik izaten. Ikastetxeen arteko koordinazioa jada ohitura da. Bere ikasle izandakoen emaitzen berri ematen diogu Orioko Herri Ikastolari. Besteak beste, beraiek ere hausnarketak eta ekarpenak egiteko informazio zuzena izan dezaten. Orokorrean, DBHn ondo moldatzen dena Batxilergoan ere ondo aritzen da, baita unibertsitatean ere; DBHn erdi-purdi dabilenak, berriz, ondoren ere halatsu jarduten du lanean. Halere, bitxia da Batxilergoan hala-hola dabilzan ikasleekin gertatzen dena: zuzenean unibertsitate bideratu beharrean, lehenengo Lanbide Heziketako zikloa bukatu, eta ondoren unibertsitateko ibilbidea garatzea erabakitzen dutenak oso ondo moldatzen dira unibertsitatean.

Ikasleek argi izaten al dute zein ikasketak egin nahi dituzten?

Lehenik eta behin adierazi behar da ahal den eta informazio gehien jaso ondoren hartu behar dutela erabakia. Kasu guztietan, guraso eta irakasleen lana izango da gi-

“Azken ikasturteetan selektibitate aurkeztu izan diren guztiek gainditu dute proba hori”

daritza lanak egitea; halere, ikasleei utzi behar zaie azken erabakia hartzen. Hala, norberak ikasi nahi duen horretan gauzak nahi bezala ez badoaz, porrotaren sentsazioa ez da hain handia izaten; familiari inposatutako kasuetan ez bezala. Dena dela, hasieratik garbi utzi behar zaie beraien bizitzan hartu behar dituzten erabakien artean bat gehiago izango dela. Egindako aukerak ez badute guztiz asmatzen, behar bada ondorio batzuk izango ditu, baina ez zaie mundua bukatuko. Soilik beste erabaki batzuk hartzea tokatuko zaie bide ezberdina jorratu ahal izateko.



Arraunean ekin eta ekin heziketa fisikoko saioetan

Igeriketa orain, futbola gero, saskibaloian eta pilotan ere maiz; ikasleak hainbat kirolatan aritzen dira Ikastolan. Orain arte, ordea, urte dezente egon gara bertako kirola den arrauna praktikan jarri gabe. Horrenbestez, LH-6an hasi eta DBHko 4 mailetan jardun gara arraunean gure gazteekin; hilabete batez eta astero. Gustura ibili dira denak ere. Gertuko kirola da eurentzat, baina aldi berean, urrun ikusten dute; behin probatu arte, noski. Laz otu zitzaigun ideiarri jarraituz, aurtien eta datozen urteetan diziplina horrekin jarraitzeko asmoak ditugu; izan ere, ikasleen erantzuna ezin hobeia izan da, asko gozatu baitute Oriako gure bazterrak ezagutuz.

Aurretik hasi eta atzera: Josu Saez, Haritz Miera, Uxue Alberdi, Nora Pielago, Ainhoa Grijalba eta Garbiñe Arruti.

Agenda

ABENDUAK 21, asteazkena
San Tomas eguna Ikastolan.

ABENDUAK 23, ostirala
Mari Domingiren etorrera Ikastolara.


ABENDUAK 24, larunbata
11:00 Gabon eskea kalez kale.
17:30 Olentzero eta Mari Domingiren etorrera herrira.

ABENDUAK 30, ostirala
17:00 Gabon kanten, euskal-jantzien eta estalpeen
lehiaketa pergolan.
18:00 Gaztaina jana pergolan.

URTARRILAK 7, larunbata
22:00
Prest gaude antzezlan. Ikastolako aretoan.

URTARRILAK 20, ostirala
15:30
Haur danborrada Ikastola aurreko plazan.

URTARRILAK 27, ostirala
17:30
Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizun berria.
Karela Kiroldegian.



kutxa